



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A Eredua) (A aukera)

Ez al dago zure familian Ameriketara aberastera joandako osabaren bat? Hamaika euskaldun dabil munduan zehar galduta. Horren erakusgarri da munduko txokorik urrunenean ere badirela euskaldunak. Eta euskaldunak non, euskal etxeak han. Elkarte horietan *biltzen dira* Euskal Herriko ohiturak mantentzeko, euren artean euskaraz mintzatzeko eta, nola ez, festa txiki bat edo beste egiteko.

Aste honetan proposatzen dizugun webgunean, munduko euskal etxe guztien berri emango *dizute*. Hau da helbidea: www.euskadi.net. Behin hor sartutakoan, <<Euskaldunak Munduan>> leihatila aukeratu behar *duzu*.

Hor barruan zaudela, euskal etxe jakin baten inguruan galde *dezakezu*, elkartearen izena *dagoen* herria edo herrialdea zehatuz. Nahiago baldin baduzu, ordea, munduan dauden euskal etxe guztien zerrenda ikus dezakezu. Guztira 142 euskal etxe dira, Europa, Asia eta Ameriketara barreiatuak. Webguneak elkarte horien helbidea, telefono zenbakia eta beste hainbat datu emango dizkizu, eurekin harremanetan jarri ahal izateko. Gainera, euskal etxe guztiak aipatzen dituen mapa bat ikus dezakezu.

Bestalde, euskal etxeotako batzuek badute euren webgune propioa. Adibidez, Londresko (Erresuma Batua) euskal etxeak ondorengo web helbidea dauka: www.zintzilik.org/London. Bertan antolatzen dituzten euskara ikastaroen, euskal festen eta beste makina bat ohituren berri emango dizute. La Platako (Argentina) euskal etxearen gunean (www.centrovasco.com), Argentinara joan diren euskaldunen berri izango duzu. Gainera, bi helbide horietan euskaraz nabigatzeko aukera izango duzu!

Ulermen galderak

1. Zertarako elkartzen dira euskaldunak? (Puntu bat).
2. Zertarako da webgune hori? (Puntu bat).
3. Euskal etxe guztiek webgune berbera dute? Azaldu erantzuna (Puntu bat).

Gramatika galderak

4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik idatzitako perpausak, egitura honi jarraiki (Puntu bat).

Ameriketara aberastera joandako osabaren bat.-n.....
Nahiago baldin baduzu.-kotan.....
Argentinara joan diren euskaldunen berri izango duzu.-dako
Ikus dezakezu.ahal.....



4. Jar itzazu lehen aldian testuan ateratzen diren aditz hauek: *dira, dizute, duzu, dago, dezakezu* (Puntu bat).
7. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *biltzen, mintzatzeko, barruan, helbide* (Puntu bat).

Idazketa

Dakizuenez, euskaldunek maiz askotan kanpora atera behar izan dute. Orain, ordea, kanpotar etorkin anitz etortzen zaizkigu, horietako batzuk egoera larrietan daude. Zer iruditzen zaizu hau? Lehenagoko eta oraingo migrazioak berdinak dira? Zein iritzi duzu honetaz? Idatzi honi buruz 20-25 lerro gutxienez. (4 puntu).



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A Eredua) (B aukera)

Etxeko animaliak gero eta gehiago zaintzen dira gaur egungo gizartean. Animalien ongizatearen alde egiten dute lan, besteak beste, albaitariak, animalien ile apaindegiek, eta baita etologoek ere, hots, animalien psikologoek. Animaliarik izan ez duenak nekez ulertuko ditu zerbitzuok, baina gero eta gehiago hedatu izana ez da kasualitate hutsa: animalien jabeek horien beharra ikusi dutelako zabaldu dira.

Javier Antoñana nafarrak, animaliak errausteko enpresa, Duin Crematorio izenekoa, beharrak bultzatuta sortu zuela esan dio BERRIari: «Beti egon naiz animaliangandik hurbil, Nafarroako herritxo batean jaio bainaiz, eta oso ohikoa da animalia edukitzea. Orain sei urte, minbiziaz jotako txakur bat hil *zitzaidan*, eta albaitariak bi irtenbide nituela esan zidan; zarama poltsa bezala zabortegira botatzea bata, edo mendian lurperatzea, ezkutuan, isuna jartzeko arriskuarekin».

Bi aldiz pentsatu gabe, egoera horri buelta emango zion alternatiba martxan jarri *zuen* Javier Antoñanak. Arbizon, Hau da, aukera onena eta higienikoena izango zelakoan, animaliak errausteko leku bat eraiki *zuen* duela pare bat urte. Hasiera batean, «errausteko lekua txantxatzen hartzen zuten animaliarik ez zutenek, baina, denborarekin, higienikoena dela egiaztatu dute askok», azpimarratu *du*. Errausteko leku honek betetzen duen funtzioa dela eta, Antoñanaren irudiko, helburu nagusi bi bereizi behar dira. Etxeko animaliak hiltzea ez da samurra izaten, kasu gehienetan. Hori dela eta, animaliari merezitako agurra ematea da lehen helburua; hala, jabeari samina aritzen laguntzen omen *dio* Duinek.

Errespetuaren alde, errausketa

Enpresaren izenak iradokitzen duen moduan, jabeek animaliei emandako tratuak duina behar du izan, jaiotzen direnetik hiltzen diren arte. Hots, hil ondoren ere, jabeak animaliaz arduratu behar du. Bigarren helburuak, berriz, osasuna publikoarekin zerikusia du. Hau da, Javier Antoñanaren aburuz, animaliez nolana desegiteak, leku desegokietan lurperatzea dakar maiz, eta horrek arazoak sor ditzake: esaterako, inguruko ura eta lurra kutsatzea.

Enpresa sortu zenetik, helburuok uztartu ditu, eta zera azpimarratu du Javierrek: «Kontu honen inguruan pixkanaka ari gara hezten gizartea. Animalia bat daukazunetik bertatik, etengabea da berau hil arteko lana: argi izan behar da errespetatu, babestu eta beraz arduratu behar duzula; ez bakarrik animaliarengatik, baita inguruan dituzun pertsonengatik ere».

Ulermen galderak

1. Nola bururatu zitzaion enpresa hori jartzea? (Puntu bat).
2. Nola hartzen zuten hori animaliarik ez zutenek? (Puntu bat).
3. Zein ondorio dakar animaliez nolana desegiteak? (Puntu bat).



Gramatika galderak

4. Jar itzazu lehen edota orain aldian testuan ateratzen diren aditz hauek: *zitzaidan, zuen, du, dio*. (Puntu bat).
5. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *arduratu, esaterako, maiz, hedatu* (Puntu bat).
6. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik idatzitako perpausak, egitura honi jarraiki (Puntu bat).

<i>Horien beharra ikusi dutelako zabaldu dira.</i>	<i>.....bait.....</i>
<i>Antoñanaren irudiko.</i>	<i>.....-z</i>
<i>Animaliari merezitako agurra.</i>	<i>.....-n agurra</i>
<i>Nafarroako herritxo batean jaio bainaiz.</i>	<i>.....-lako</i>
<i>Higienikoena izango zelakoan.</i>	<i>.....ustez</i>

Idazketa

Etxean animalirik baduzu? Uste duzu egokia dela etxeko abereak pisu txikietan bixitea? Konta ezazu zer uste duzun gai honi buruz. Idatzi honi buruz 20-25 lerro gutxienez (4 puntu).